

Madrilgo Entzutegi Gorenaren 35/02 epaia, *Herriko Tabernen* sumariotzat ezagunagoa dena, 20 militante independentisten espetxeratzea eta 107 zentru sozialen itxiera ebazten duena, **Partiduen Legeak babesten duen ideien ilegalizazioan oinarritzen da**, inongo zalantzarik gabe. Egia da, kartzela zigorrak bi urtetik beherakoak direnez, eta



auziperatuek dagoeneko 30 urteko kartzela aldia bete dutenez, auziperatuek seguruena ez dutela kartzelara joan beharko berriro, baina hala eta guztiz ere, **ZIGORRAK POLITIKOKI ONARTEZINA ETA ERABAT ANTIDEMOKRATIKOA** izaten jarraitzen du, Txokoak ixteko **GEZURRETAN** oinarritzen delako. Horien artean dago Parte Zaharreko Herria Elkartea. Beste hitzetan esanda, kontraesan bezalako sententzia hau, **Euskal Herriak bizi duen gatazkaren konponbiderako prozesuaren aurkako neurri berria da. Gutxi balitz, 1936ko Diktadura Frankistaz geroztik Estatu espainolean sektore politiko baten aurka eginiko lapurretarik, konfiskaziorik, handiena da.**

Hiru hamarkadatan milaka militante independentistek sortu, finantzatu eta dinamizatutako ehundik gora Txoko hauen dekomisioak, Euskal Herriarentzat alternatiba politiko ezkeriar eta independentista lantzen duen sektore sozialaren espazioa publiko eta fiskikoak ixteko helburu zehatza du. Modu horretan, sektore sozial honen adierazpen politiko, sozial eta kulturala suntsizteaz gain, militantziaren eskolari kolpe zuzena ematen dio eta 200 langile eta hauen familiak kale gorrian utziko ditu.

Duela 30 urte, auzotarren ekarpen militanteekin sortu eta osatu zen Herria Elkartea, auzoaren dinamizazio sozio kulturalen parte hartu duten dozenaka pertsonen eta eragileren topalekua izan da hasiera hasieratik.

Ate hauen atzean eta aurrean, hiru hamarkadatan kultura, jendarte eta aisialdiaren inguruko hainbat ekimen bultzatzen ditugu, **Herria Elkartea erreferentzia bilakatuz bai auzoan, bai Euskal Herrian, baina baita hemendik kanpo ere.** Euskal Herriaz interesa izan duten mundu osoko bisitariarentzat ateak zabalik izan ditu beti Herriak. Gaur esfortzu ekonomiko eta militante handiz 30 urtez zabalik izan diren ate horiexek dira orain itxi nahi dizkigutenak.

Kalea geratzen zaigu. Hori izan da benetan Herria Elkartearen tokia, auzoan, auzoarekin eta auzoarentzat... eta hor jarraituko dugu. Izan ere, ate hori ezin digute itxi, itsasoan langarik jarri ezin zaiolako. Guztion artean **HERRI ERRESISTENTZIA ETA ERANTZUNA** antolatuzera goaz.

HERRIA AURRERA !

LIBRE

eta zabalik !